

Denboraren makina
Kapera Sixtinoa,
gogoz kontra
egindako maisulana

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Thesi
Urduña, Bizkaiko
hiri bakarra

ARGIA

erdiko kaira

kultura eta aisia

Sant Jordi

Kataluniako

liburugintzaren patroia

Per Sant Jordi, un llibre i una rosa. Hala dio tradizioak: apirilaren 23an, Sant Jordi egunez, liburu bat eta arrosa bat oparitu behar direla, mutilak neskari arrosa eta neskak mutilari liburua. Gaur da eguna, ordea, denek denei liburu eta arrosa bana oparitzen dietena, landare eta liburu industriaren mesedetan, pentsa daiteke. Eta, honezkero igarriko zenioten, erreportaje honetan ez dugu arrosotaz hitz egingo. Bai, aldiz, liburuez eta, besteren gainetik, Sant Jordi egunak Kataluniako liburuaren munduan duen esanahiaren eta pisuaren inguruan.

Dendetako erakusleihoek asteak daramatzate Sant Jordi egunerako motorrak berotzen.



Egun santu osoa liburuentzako

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: Núria Juan Serrahima

EGUN HANDIA DA Sant Jordi katalanentzat: lanera berdin-berdin joan beharra duten arren, ez da bestelako egun bat, bai baitakite lana bukatzarekin bat kalera irten eta liburuaz mukurua diren mahaitxoak bisitatzeko aukera izango dutela, nork daki, akaso ordu-rako arrosa bat eskuan dutela. Mahaitxoak bisitatu, paseo gozoan, edota egun osoan antolatzen diren hamaika ekitaldietako batera joan: irakurraldiak, idazleen sinadura ekitaldiak, argitaletxeek ordaindutako zizkamizkak... Liburuaren festa baita apirilaren 23a Katalunian. Egun seinalatua, batzuek zein besteek irrikaz espero dutena.

Eta egun handia da Sant Jordi liburugintzan lanean diharduten agenteentzat ere. Euskaldunok Durangoko Azokari begira egoten garen bezala, Sant Jordi eguna du ikusmiran liburuaren industriak Katalunian, begi bistako arrazoiengatik: “Urteko liburu salmenten %40 inguru fakturatzen dugu Sant Jordi egunean eta aurreko asteak hartzen dituen kanpainaren baitan”. Anna Tomàs, Columna argitaletxearen arduraduna-

Sant Jordi egunean hainbat ekitaldi antolatzen dira Kataluniako liburu dendetan.

ren hitzak dira horiek, eta ez dira inondik ere salbuespen. Hitz egin dugun gainontzeko argitaletxeek ere, kopuru zehatzik eman nahi izan ez duten arren, aitortu dute Sant Jordi egunaren inguruan egiten diren salmentak zifra garrantzitsua direla urte osoan baita.

Konpetentzia basatia

Egun horri begira egoten dira Kataluniako argitaletxeak eta egun horri begira publikatzen dute urteko katalogoaren zati handi eta aipagarri bat. “Basatia da konpetentzia” adierazi digu Isabel Martí La Campana argitaletxearen editoreak, “ez liburu saltzaileek, ez eta kazetariak ere ezin diote argitaratzen den eskaintza guztiari erantzun. Gure argitaletxean saiatzen gara, exijentzia mailari traizio egin gabe, data horietan liburu batzuk erreferentzia izan daitezkeen urtero”. Argitaletxe guztien nahia da hori, Sant Jordi eguneko oihanean beren lekutxo egitea. “Gainera”, jarraitzen du Martík, “Sant Jordi egunean leku on bat lortzen duen liburuak salmentak luza ditzake hurrengo hilabeteetan”.

La Campanak urtean 18 bat liburu publikatzen ditu eta apirilaren 23rako saiatzen dira 4 eta 8 liburu artean kaleratzen. “Gero, noski, lan egin behar da gogor, liburu horiek denda eta komunikabideetan ongi azal daitezkeen”, dio Martík. Balore seguru bat dute argitaletxean, Josep Maria Espinàs idazle beteranoa. Azken 54 urteetan liburu berri bat atera du apirilaren 23aren kariatara eta egun horretan beti egon izan da irakurleen ondoan, liburuak sinatzen. Bere lanak urtero ageri dira salduenen artean, eta orain gutxi kaleratu duen *El meu ofici* (Nire ogibidea) liburuaren aurten kaleratzea kiniela guztietan sartzen da, nola ez.

Sergi Masferrer Quaderns Crema argitaletxearen arduradunaren arabera, “publikazio etxe handiak Sant Jordi eguneko salmenten menpekoago dira, argitaletxe txikiak baino”. Sergi Pàmies idazlearen azken ipuin liburu-



Literaldia 08

Kultura katalanaren baimenarekin, euskal kulturak aurren ere izango du bere tartetxoa Sant Jordi egunean. Apirilaren 23an emango zaio hasiera 2008ko Literaldiari eta hilabete oso batez hamaika ekitaldi antolatu dira euskal literaturaren inguruan. Euskaraz egiten den literatura Katalunian ezagutaraztea helburu duen jaialdia da Literaldia, Bartzelonako Euskal Etxeak eta Hizkuntza Eskola Ofizialeko, Universitat de Barcelona eta Universitat Autònoma de Barcelona unibertsitateetako euskara sailek antolatzen dutena. Aurtengo edizioa laugarrena izango da eta *Gaur egungo Euskal Herria, literatura* goiburuzabal eta erakargarria izango du akuilu.

Sant Jordi egunean bertan, hainbat idazle elkartuko dira Euskal Etxeak Bartzelonako Rambletan jarri ohi duen mahaitxoan, liburu aleak sinatzeko. Baina ez da izango egun horretako ekitaldi bakarra. Taperware Kolektiboko kideek, esaterako, *Leihatila beltza* liburua aurkeztuko dute Hizkuntza Eskolako areto nagusian eta Ur Apalategi idazleak ipuin baten irakurketa egingo du Euskal Etxean. Hurrengo egunetan Literaldiako jarduerak ez dute etenik izango. Nabarmentzekoen artean daude apirilaren 24an Beñat Sarasolak eskainiko duen poema errezitaldia edota 29an Harkaitz Canok egingo duen *Las glosas del embalsamador* hitzaldia. Bigarren saio bat emango du Canok berak, egun berean, euskarazko eta gaztelaniazko hainbat poemaren irakurraldia, hain zuzen.

Maiatzaren 7an Euskal Etxean egingo den *Leihatila beltza* liburuarren bigarren aurkezpenaren ondotik, 14an

Ibon Egaña literatur kritikariak eta *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan* liburuarren koordinatzaileak, *Begirada gatazkaren gainetik* hitzaldia eskainiko du, euskal gatazka eta literaturaren arteko harremana aztertuz. Hurrengo egunean, maiatzaren 15ean, Koldo Izagirrek, Joseba Tapiak eta Carles Belda musikari katalanak Salvador Puig Antichen omenezko errezitaldia eskainiko dute, musika eta poesia uztartuz. Maiatzaren 22an, Iñigo Aranbarri idazleak hitzaldi bi eskainiko ditu, asmo beraren inguruan: euskal gizarteaz literaturak egiten duen erretatuaren nondik norakoak azaltzen saiatuko da.

Izango da bestelako saiorik ere, jendearen parte hartze zuzenagoa eskatuko duen emanaldirik. Apirilaren 25ean, adibidez, telebista bidez hain ezagun egin den *Mihiluze* leihaketa bertsio bat egingo da Euskal Etxean. Ez ahantzi telebista publiko katalanak orain gutxi kopiatu duela formatua eta nahikoa arrakasta izaten ari dela TV3ko *Bocamoll* programa. Euskara eta euskal kultura ezagutarazteko asmoarekin, Bartzelona osoko euskara ikasleek parte hartu ahal izango dute bertan, jai giroan. Maiatzaren 17an ipuin kontalariek animatuko dute arratsa eta 23an, aurtengo Literaldia itxiko duen emanaldia egingo da, bertso eta garrotin afaria. Abesti inprobisatu mota bat da Kataluniako garrotina.

Bartzelona hiri erakargarria da, baita euskaldunontzat ere. Literaldiaren aitzakia ez da aukera txarra Kataluniako hiriburua bisitatzeko.

rua, *Si menges una llimona sense fer ganyotes* (Limoi bat jaten baduzu imintziorik egin gabe), izan zuten Quaderns Cremakoek iazko libururik salduena. Aurtengo edizioarako ere ez dute nolana hiko kartela: lehenik eta behin Quim Monzóren azken liburua, *Mil cretins* (Mila ergel); iaz Kataluniako Literatura Sari Nazionala irabazi zuen *La força de la gravetat* (Grabitatearen indarra), Francesc Serés idazlearena; eta Jonathan Littell 2006ko Gouncourt sariaren katalanezko itzulpena,

Les benignes (Onberak). Nobedade gutxi, beraz, baina ez makalak.

Liburu mediatikoak

Columna argitaletxera itzuliz, Sant Jordi eguna “intentsitate handiz” bizi dute, Anna Tomàsena hitzetan. Denbora askorekin hasten dira presatzen: lehenik eta behin kanpainaren ardatza izango diren liburu garrantzitsuenen hautaketa egiten dute, editoreen, komertzialen eta komunikazio arduradunen artean. Behin hori defini-

Txapela Buruan
to ibili munduan

Narrika, 18. Donostia
telf. 943428299 www.txapelaburuan.com

2008ko apirilaren 27a

ARGIA

25

Sant Jordiren legenda

Kataluniako Montblanc herrian dragoi bat bizi omen zen, bertako biztanleak erabat izuturik zituena. Piztia baretzeko zozketa bidez aukeratutako pertsona bat sakrifika-tzen zuten tartean-tartean, baina, zorte txarra, erregearen alabari egokitu zitzaion behin sari makurra. Dragoiak irentsia hilko zen dama galaia, Sant Jordi zaldun pres-tua agertu eta piztia akabatu izan ez balu. Hildako animaliaren odoletik jaio zen ar-rossa gorri bat. Hauxe da, hitz gutxirekin eta grazia gutxiagorekin azaldua, Sant Jordiren legenda. Kondaira denboran galtzen da, eta aldaketa gutxi batzuekin aurki dezakegu Ingalaterra, Por-tugal edota Greziako tra-dizio herrikoietan. Aspalditik dator gainera, XV. mendetik, santuaren egu-nean emakumeei arrosak oparitzea ere.



Berriagoa da apirilaren 23an liburu bat oparitzea. 1930 aldera egonkortu zen gaur ezagutzen dugun formatuan, Cervantes eta Shakespeare idazle handien heriotza egunean hasi baitzen ospatzen. Data horretan jaio edo hil dira beste hainbat idazle ezagun ere, Josep Pla edota Vladimir Nabokov, adibidez. 1995ean, Liburuaren Nazioarteko Eguna izendatu zuen UNESCO erakundeak apirilaren 23a.

tuta, komunikazio kanpaina indartsua egiten saiatzen dira: publizitate asko sartzen dute idatzizko komunikabideetan, telebis-tan eta irratietan. Aurtengoan, Ferran Torrent valentziarraren *Només socis* (Kideak soilik) edota Ramon Llull sari garrantzitsua irabazi duen Najat El Hachmi-ren *L'últim patriarca* (Azken patriarka) dira nobedade nagusiak.

Horiez gain, liburu erosle katalanen artean arrakasta nabarmena duten liburu mediatiko zenbait ere kaleratu ditu Columna etxeak. Hiru talde handitan sailkatzen baitira Sant Jordi eguneko liburuak: fikziozkoak, ez-fikziozkoak eta mediatikoak. Aurpegi ezagun-ek "idatzitako" liburuak sartzen dira azken talde horretan eta saldu behintzat ugari sal-tzen dira. Tomàs-en argitaletxeak Andreu



Oraindik gaztelaniazko liburuak katalanez idatzita daudenak baino gehiago saltzen dira apirilaren 23an. Baina hori ezaguna egiten zaigu ezta?

Hiru taldetan sailkatzen dira Sant Jordi eguneko liburuak: fikziozkoak, ez-fikziozkoak eta mediatikoak

Buenafuente eta Manel Fuentes telebista aurkezleen liburu bana atera ditu, adibidez.

Pilar Beltran Edicions 62 argitaletxe-ko editorearentzat Sant Jordi "mundu editoria-laren festa da, liburugintzan ari garen guz-tiok (autore, editore, kazetari) elkartzeko eguna, bai eta idazle eta irakur-leen arteko harremanen eguna ere". Beltranen hitzetan, "egun horri begira apustu editorial kon-kretu batzuk egiten dira, aurtengorako berriki hil den Josep Benet-en memoriak, esaterako, baina saiatzen gara urtean zehar oreka mantentzen, eta beste data seinlatu batzuk ere (Gabonak, ikasturte hasiera, uda) indartzen".

Hala ere, han eta hemen errepikatzen den kontu bat aipatu dute katalanez argitaratzen duten argitaletxeek: oraindik orain gaztela-niazko liburuak katalanez idatzita daudenak baino dezente gehiago saltzen direla. Baina ezagun egiten zaigu hori, ezta? ■